

ALKATEA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2017ko ABENDUAREN 20an  
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK  
Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Josu Artetxe  
Esteban Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hogeian, hemetzortziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilkura egiteko. Alkatea Gentza Alamillo Udaeta jauna da mahaiburua eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

BERTARATU            EZ  
DIRENAK  
Lauren Uria  
Iratxe Parro

IDAZKARIA  
Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongi etorria eman die eta gehiagorik gabe Ohiko Bilkurako gai zerrendan dauden puntuen eztabaida eta bozkatzera pasa dira:

Aztergaien zerrendako puntuekin hasi aurretik, idazkariak azaldu du Iratxe Parro zinegotzi andreak eskatu zuela Iraida Saenz de Lafuente andrearengan eskuordetzea bere botoa, amatasuna dela eta. Zinegotziei jakinarazi zaie alkatetza dekretu bat idatzi dela osoko bilkuretan eta informazio batzordeetan 2017ko abenduaren 1etik 2018ko apirilaren 6ra arte (biak barne) botoaren eskuordetzeari buruz.

Hortaz, tarte horretan ospatuko diren osoko bilkuretan eta informazio batzordeetan Iraida Saenz de Lafuente andreak bere botoa eta Iratxe Parrorena emango ditu.

### **1.- Onestea, bidezkoa bada, 2017ko azaroaren 23an eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Iraida andreak (Aiara Batuz) aipatu du aktaren zazpigarren puntua ez zela aho batez onetsi, gehiengo absolutuarekin baizik; izan ere, abstentzioak egon ziren.

Idazkariak ikusi du akatsa eta esan du aldatuko duela.

Gaiari buruzko beste ezer esan gabe, akta aho batez onetsi da.

### **2º.- Onestea, bidezkoa bada, "Kantauriko Urkidetza" ur partzuergoko estatutuak aldatzea.**

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (5 EAJ-PNV + 3 BILDU)

- Abstentzioak: 2 (AIARA BATUZ)

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** “Kantauriko Urkidetza” Ur Partzuergoak 2017ko azaroaren 10ean igorritako jakinarazpena. Horren bidez jakinarazi zuen Ur Partzuergoko ezohiko batzar orokorrean erabaki zela estatutuak aldatzea, indarrean dauden legeetara egokitzeko.

**AINTZA HARTU DA.-** Indarrean dauden estatutuen 4. ataleko 41. artikulua zehazten duela estatutuak aldatzeko udalbatza osoaren onespena behar dela, hau da, Ur Kontsortzioa osatzen duten korporazio bakoitzeko kideen gehiengo osoak onetsi beharko du.

**AINTZAT HARTU DA.-** Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 47.2. artikuluan xedatutakoa.

Udalbatza osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** “Kantauriko Urkidetza” Ur Kontsortzioaren estatutuen aldaketa onestea, batzar orokorrak 2017ko urriaren 24an erabaki zuen bezala. Beraz, 3. ataleko 10. artikulua (adostutako bertsioan) jasoko do Kantauriko Urkidetza Ur Kontsortzioak dagozkion lizentziak eskatu beharko dituela (obra edota jarduera) lurzorua edo lur-azpia erabiltzeko jarduera guztietarako, edo eraikitzeko eta instalazioak egiteko, hirigintza-araudian zehaztutakoari jarraikiz.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari baimena ematea erabaki hau exekutatu eta kudeatzea, estatutuen aldaketa guztiz indarrean egon arte.

**Hirugarrena.-** Kantauriko Urkidetza Ur Kontsortzioari jakinaraztea erabaki hau jakinarenean gainean egon daitezen eta dagozkien xedeak izan ditzan.

### **3.- Hasiera batean onestea, bidezkoa bada, Aiarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta Ingurumeneko Azterlan Estrategikoa jendaurrean ikusgai jartzea.**

Iraida andreak (Aiara Batuz) aipatu du zegokion batzordean esan bezala, ALHAOn argitaratzen denean 45 egunez jarriko da jendaurrean ikusgai. Eta berriz administrazio batzarretara joko dute testuak aurkeztera. Zazpi saio egingo dira, eta batzar haundi bat batuko da txiki batzuekin, eta saio batzuk monografikoak izango dira, Luiaondon eta Arespalditzan bezala.

Halaber, egun batzuk gaituko dira enpresako teknikariak herritarren zalantzak argitu ditzaten jendaurrean ikusgai jartzen den epean.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du talde politikoei eskatuko zaiela berrikusi beharreko testuetan oharrak idatzi ditzaten, hautematen diren akats txikiak, behin behineko onestera eramaten denean zuzenduta egon daitezen; gauza bera eskatuko zaie udaleko teknikariei.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan; gaia bozkatu da eta gehiengo absolutuarekin onetsi da, bertaratu diren korporazioko kide guztiek aldeko botoa eman ostean.

Hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** 2013ko abenduaren 19an, Aiarako Udalak aho batez erabaki zuen Aiarako udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egiteko eta idazteko prozedura abiaraztea.

**IKUSI DA.-** 2015eko maiatzaren 22ko 61 zenbakiko ALHAOn jendaurrean ikusgai jarri zela bi hilabetez (ondoren, 2015eko uztailaren 31ra arte luzatu zen) Aiarako Hiri Antolamenduaren Plan

Orokorren Aurrerapena, interesdunek egokitzen jotzen zituzten erreklamazio eta iradokizunak aurkez zitzaten.

**IKUSI DA.-** 2016ko maiatzaren 30ean erabaki zela Aurrerapenari buruz aurkeztutako aholku eta beste irtenbideak ebaztea, eta aipatutako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egiteko irtenbide eta irizpideak finkatu ziren.

**IKUSI DA.-** Aiarako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, M.A.R Arquitectos, SCP enpresak idatzitakoa, eta honela dago osatuta: 2017ko ekainean idatzi zen testua hasiera batean onesteko, 2017ko azaroan idatzi zen lehen eranskina eta 2017ko abenduan idatzi zen bigarren eranskina.

**AINTZAT HARTU DIRA.-** Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedura eta 2017ko azaroan idatzitako Ingurumen Azterlan Estrategikoa; azken hau, araudiaren arabera, Hiri Antolamendurako Plan Orokorran zati gisa hartzen da.

**AINTZAT HARTU DIRA.-** Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 85. eta 90.5 artikulua; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikulua; Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 47.2.11) artikulua.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumen Informazio Batzordeak 2017ko abenduaren 13an emandako aldeko irizpena.

Bertaratu diren korporazio honetako kideek (osatzen duten 11 kideetatik 10ek), aho batez, honako hau **ERABAKI DUTE:**

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onestea Aiarako udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra; honela dago osatuta: 2017ko ekainean idatzi zen testua hasiera batean onesteko, 2017ko azaroan idatzi zen lehen eranskina eta 2017ko abenduan idatzi zen bigarren eranskina. Guztia M.A.R. Arquitectos, SCP enpresak idatzi du.

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eta 2017ko azaroko Ingurumen Azterlan Estrategikoa ALHAOn, lurraldean tirada gehien duen egunkarian eta udaleko webgunean 45 laneguneko epean, argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Hala, interesa duen edozein erakunde edo pertsonak agiriak aztertu ahalko ditu eta egokiak iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztu ahalko dituzte.

**Hirugarrena.-** Hasierako onespina jakinaraztea eta txostena bidaltzea sektorean eskumena duten Herri Administrazioei eta udalerriko administrazio batzarrei, hauek jakitun egon daitezten.

**Laugarrena.-** Kaltetutako herri administrazioei eta interesa duten pertsonen kontsulta-izapidea ematea, aipatutako epean derrigorrezkoak diren txostenak bildu ostean, Ingurumen Azterlan Estrategikoa eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorren hasierako onespeneren dokumentua aztertzeko. Horretarako, erabakia eta agirien kopia digital bat igorriko zaizkie Ingurumen Azterlan Estrategikoaren irismenari buruzko dokumentuarekin (Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasun Zerbitzuak idatzitakoa) zerikusia duten administrazio eta erakunde guztiei.

**Bosgarrena.-** EAeko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eten egingo dira, gehienez ere bi urteko epean, planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako onespesak, baimenak eta lizentziak.

#### **4.- BILDUK aurkeztutako adierazpena, 2017ko Euskararen Nazioarteko Egunari buruzkoa.**

Nerea andreak (Bildu) adierazi du BILDUK aurkeztutako mozioan ikastaldiaren doakotasuna aipatzen dela eta hori nabarmendu nahi dute. Izan ere, doakotasuna da elebitasunera iristea eta herritarrak euskalduntzea bermatzen duen modurik hoberena. Mozioan aipatzen diren ia beste gauza guztiekin ados daudela gehitu du, baina beraien taldeak aurkeztutakoa defendatu nahi dute; izan ere uste dute Udal honen baliabideekin euskara ikasteko gastuen % 100a ordaindu litekeela.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du gobernu taldea eta Bildu ados jartzen badira eta mozio bat adosten badute alde bozkatuko dutela. Hala egiten ez badute, abstenitu egingo dira, gaia oso garrantzitsua baita ados jartzeko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du mahai gainean kopuruak jarri gabe, zaila dela konpromisoa hartzea.

Nerea andreak (Bildu) gehitu du aurrekontuak eztabaidatu ostean zenbateko zehatzei buruz hitz egingo dutela. Konpromisoa hartzea da kontua, aukera aztertzea eta hori egiteko asmoa dagoela frogatzea.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) azaldu du zaila dela erabaki bat hartzea daturik gabe. Asmoa badago, partida handitu baita.

Nerea andreak (Bildu) esan du asmoa egonez gero, aztertu litekeela.

Azkenik, bertaratu diren korporazioko kideek erabaki dute puntu hau ez bozkatzea (4.) eta bosgarren puntuko mozioa batera adostea.

#### **5.- EAJ-PNV taldeak aurkeztutako adierazpena, 2017ko Euskararen Nazioarteko Egunari buruzkoa.**

Aurreko puntuko eztabaidaren ostean, korporazioko kideek erabaki dute EAJ-PNV taldeak aurkeztutako adierazpeneko arrazoen zioak jasotzen dituen adierazpen bat onestea, eta BILDUK aurkeztutako adierazpeneko a) eta b) xedapenak gehitzea, eta hirugarren puntu hau gehitzea ere:

c) Udalak aztertuko du Aiarako bizilagunek euskara ikasteari dagokion gastu osoa finantzatzeko aukera.

Adierazpena bozkatu da eta aldeko 10 botorekin onetsi da (bertaratu diren kide guztien botoa gehi Aiara Batuzeko eskuordetutako botoa).

#### **“2017ko EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERKO ADIERAZPENA**

##### ***Euskara auzolana. Euskaraka lankide nahi eta behar gaitu, urtean 365 egunez***

*Euskara urtean egun batez dugu ospakizunerako gai, eta 365 egunez langai. Elkarlanerako gai. Adostasunerako gai. Eta ospakizun eguna baliatu nahi dugu, hain zuzen, ilusioaren hauspoa haize berriz betetzeko. Indar berriez sendotzeko denon eginahala. Hori behar baitu euskarak, hori behar baitugu euskara guztion ezpainetan, kaleetan, etxeetan, ziberespazioan, lantokietan, pantailetan, paperetan nahi dugunok: ilusioa. Eta elkarlana. **Auzolana.***

*Ilusioa eta elkarlana, inork garai likidotzat definitu dituen gure gaurko hauek euskaltzaletasunez borborka jartzeko.*

*Ilusioa eta elkarlana, euskararen lurralde eta esparru juridiko guztietan ahalik eta erarik bateratuenean gure hizkuntzarentzat etorkizun bizia irabazteko. Elkarrenganako adeitasunez. Elkartasunez.*

*Ugari izan dira eta dira han-hemengo herritarrek euskara eskuratzeko eta lantzeko egindako ahaleginak. Hor dugu euskarak elikagai ezinbestekoa duen euskaldun berri andana itzela. Hor ditugu semealabak euskaraz ikas dezaten nahi izan duten guraso erdaldunak. Hor ditugu dakiten euskara ezpainetan dantzatzen ahalegintzen direnak...*

*Zenbat halako azken hamarkadotan: zenbat ahalegin pertsonal zein kolektibo, publiko zein herri ekimenekoak. Horiei guztiei zor diegu euskarak bizi duen errealitatea.*

*Orain, eta hemendik aurrerako urteetan, euskararen erabilera etengabe eta bizi-bizi areagotzea dugu langintza nagusi, ezagutzaren handitzearekin batera euskararen aldeko hizkuntza ohituren aldaketa sakona gauzatu dadin. Mingainak dantzan jartzeko premia dugu, eta, bistan denez, mundu aldakor honetan, kantu eta kontu berriak behar ditugu horretarako.*

### ***Bide berriak, bide guztiak.***

*Hala nahi zuen jokatu Lizardi handiak literaturgintzan. Hala behar du euskarak. Halaxe behar du euskalgintzak ere.*

*Emankor gertatu dira, bistan denez, ibilitako bide asko. Eta elkarlana da emankortasun hori auzolanean areagotzeko giltzarria.*

*Une aproposa da administrazioek eta herri ekimenak auzolanean bide berriak zabaldu, eta gehiengo soziala euskararen alde egotetik euskararen alde egitera eramateko. Euskara erabiltzera eramateko.*

*Une aproposa da euskararen lurralde eta eremu guztietako herri aginteen arteko lankidetzaren berrikuntzaren bidetik sendotzeko. Erabileraren mesedetan.*

*Eta euskarak elkarlan horien guztien premia du. Ezinbestez.*

*Ideen konfrontazioari uko egin gabe, irtenbideak adostuz, bakoitzaren eginkizun eta erantzukizunetikiko errespetuz, elkarrenganako leialtasunez, eta denok norabide berean bultzatuz.*

*Bakarka ezinezkoa da. **Auzolanean**, guztiz ilusionagarria.*

### ***365 egun.***

*Musikari bakar batek ezin du orkestra oso baten doinua aldatu, zuzendariaren eta gainontzeko musikarien laguntza gabe. Euskal hiztun bakar batek nekez aldatuko ditu hizkuntza ohiturak, gizartearen babesik izan ezean.*

*Hizkuntza ohiturak aldatzeko bide luzean, euskararen aldeko gehiengo soziala aktibatu behar: euskararen lurralde guztietako administrazioak zein herri ekimena. Lurralde eta eremu guztietako erakundeak. Gizarte ekimeneko euskalgintzako taldeak zein bestelako esparruetakoak. Euskaldun osoak, euskaldun hartzaileak eta erdaldunak.*

*Malgutasunez. Herri bakoitzaren errealitatera egokituz. Tokiko eragileekin urratsak adostuz. Parte hartzaile guztiak ahaldunduz.*

*Euskaltzaletasunaren sua indartuz hala Angelun nola Andoainen, Barkoxen zein Barakaldon, Eltziegoren eta Erronkarin.*

*Auzolana da bide bakarra. Hizkuntza ohituren aldaketa kolektiboa izanen da ala ez da izanen.*

*Euskararen Eguneko gure konpromisoa, datozen 365 egunotan izan dadin lan egitea. Auzolanean lankide zintzo.*

*Euskara auzolana baita.*

*A) Udalen arteko erakundeei lehenbailehen jakinaraztea adierazpena eta konpromisoa jaso dela.*

*B) Udalen arteko erakundeei berri ematea euskara sustatzeko ekimenei buruz, erakunde horiek berri eman dezaten.*

*C) Udalak aztertuko du Aiarako bizilagunek euskara ikasteari dagokion gastu osoa finantzatzeko aukera.*

## **6.- Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondoriozko kontu hartzen duen organoaren txostena, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan, eta Udalbatza kontu-hartzailearen txostenaren jakinaren gainean dago.

**IKUSI DA.-** 2016. urteko likidazioak gastu-partidak sortzeko edo daudenak handitzeko, nahitaezkoak diren 2018. urteko aurrekontura itxaron ezin duten ordainketak egiteko, ateratako diruzaintzako gerakinen zati bat gastu orokorrak ordaintzeko erabiltzeko beharra.

**IKUSI DA.-** 2017ko abenduaren 15eko idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostena, gastuak diruzaintzaren gerakinaren gastu orokorrekin finantza egonkortasuna betetzeari buruzkoa.

**AINTZAT HARTU DA.-** abenduaren 13ko 38/2013 Foru Araueko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzkoa.

Udalbatza osoak Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondoriozko kontu hartzen duen organoaren txostena, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa, 2017ko abenduaren 15ekoren berri du.

## **7.- Alkatetza dekretu hauen berri ematea:**

- **529/17 erref.: AHC.-** Obrak geldiarazteko agintzea eta nahasitako hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea abiaraztea; izan ere, emandako udal lizentziak ez ditu babesten.
- **530/17 erref.: AHC.-** Etxegoien lurra mugitu eta betetzeko obrak geldiarazteko agintzea eta nahasitako hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea abiaraztea.
- **531/17 erref.: AIARAKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK.-** 2017ko udal aurrekontuan Administrazio Batzarren parte-hartzea erabakitzea.
- **532/17 erref.: 1036/2017 B AAHan** demandatu gisa bertaratzeari buruzko dekretua, Maderas Zerrabe, SL enpresak jarritakoa.
- **533/17 erref.: Itelazpi, SA.-** Udal lizentzia ematea Zuazaoko Telekomunikazioko C4 Zentroan obrak egiteko.
- **534/17 erref.: MENAGARAIKO EMAKUME TALDEA.-** 2017ko diru-laguntza ematea, % 90a ordaintzeko agindua.

- **535/17 erref.: AIARA BOLATOKI TALDEA.-** 2017ko diru-laguntza ematea, % 90a ordaintzeko agindua.
- **536/17 erref.: FRR.-** Menagaraiko Jauregi auzoan etxebizitza bat eraikitzeko obrak amaitzeko epea luzatzea.
- **Erref.- 537/17.-** Luiaondoko Administrazio Batzarra.- Luiaondoko frontoiaren eta bolatokiaren artean dagoen itxitura aldatzeko obrarako udal lizentzia ematea.
- **538/17 erref.: Añesko Administrazio Batzarra.-** Añeseko argiteria publikoa aldatzeko obrarako udal hirigintza-lizentzia ematea.
- **539/17 erref.: Olabazarreko Administrazio Batzarra.-** Obrarako lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatu zaizkio, argiteria publikoa aldatzeko eta puntu berriak jartzeko obrei buruzko espedienteari buruzkoak.
- **540/17 erref.: Euromex Correduría de Seguros, SL.-** Aiarako Udaleko eraikinen aseguru poliza zerbitzuaren kontratu txikia esleitzea.
- **541/17 erref.: CAMARA, SA.-** Udal igerilekuetara sartzeko eremua inpermeabilizatzeko obraren II. fasea exekutatzeko obraren kontratu txikia esleitzea.
- **542/17 erref.: Arespalditza Administrazio Batzarra.-** Erabilera anitzeko eraikinaren jarduera garatzeko onespena ematea.
- **543/17 erref.: Arespalditzako Administrazio Batzarra.-** Arespalditzako lursail bateko eraikina berreraikitze obretatik sortutako eraikuntza- eta eraispent-hondakinak modu egokian kudeatuko dituela bermatzeko jarritako fidantza itzultzea.
- **544/17 erref.: Arespalditza Administrazio Batzarra.-** Behin behineko lizentzia ematea Arespalditzako erabilera anitzeko eraikina lehen aldiz erabiltzeko.
- **545/17 erref.: Venticlima, SA.-** Etxaurren Ikastolan berogailu sistema eta ACS ekoizpena hobetzeko proiektua idazteko zerbitzua esleitzea.
- **Erref.- 546/17.- 5/2017 zenbakiko kreditu-transferentzia.**
- **547/17 erref.: Esetek Smart Energy, SL.-** Aiarako Udaleko energia elektrikoaren horniduraren kontratazioa arautzen duten pleguak idazteko zerbitzua esleitzea.
- **548/17 erref.: Maderas Zerrabe, SL.-** Zuazako zerrategi industria-jarduera gelditu eta behin betiko ixteko administrazio-espedientea ebatzea.
- **549/17 erref.: Esetek Smart Energy, SL.-** Aiarako Administrazio Batzarraren energia-aholkularitza zerbitzua esleitzea.
- **550/17 erref.: Alkatearen 9/2017 kreditu gehigarriaren espedientea.**
- **551/17 erref.: Zuazako Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal lizentzia ematea, Zuazan dagoen lursail baten alboan hodi bat jartzeko eta hormigoizko areka bat egiteko obrarako udal-lizentzia ematea.
- **552/17 erref.: EGB.-** Informazio publikoa lortzeko baimena.
- **553/17 erref.: Aguiñigako Administrazio Batzarra.-** Obrako udal lizentzia ematea Aguiñigako teilaginean aisiarako eremu bat egokitzeko.
- **554/17 erref.: CMLO.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llantenen dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko eta fatxada margotzeko.
- **555/17 erref.: Onestea F/2017/14 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **556/17 erref.: Izoriako Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal lizentzia ematea, Ripatik Betxira (Izoria) doan bidearen sarbidea eta ura igarotzeko bost puntu egokitzeko.
- **557/17 erref.: JBAA.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Menagaraien dagoen etxebizitzako leihoak aldatzeko.
- **558/17 erref.: AJM.-** Obrarako udal lizentzia ematea Arespalditzan dagoen etxebizitzako terrazan dauden hustubidea aldatzeko.
- **559/17 erref.: Menagarai-Beotegiko bide partikularreko jabekideen elkartea-** Udal lizentzia ematea, Menagarai-Beotegiko bide partikularra mantentzeko obretarako.

- **560/17 erref.: IFR.-** Obrara lizentzia ematea eta hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.
- **561/17 erref.: REMOLQUES RALNER.-** Atoi berri bat hornitzeko kontratua esleitzea.
- **562/17 erref.:** “Luiadondoko Padura kaleko hiri-mugikortasuna hobetzeko jarduketak” obraren proiektua eta pleguak onestea.
- **563/17 erref.: Emaus Bilbao, SCIS.-** 2015eko azaroaren 26ko 535/17 Alkatetza Dekretuaren bitartez emandako obrareko lizentzia iraungitzat jotzea.
- **564/17 erref.: Etxegoieneko Administrazio Batzarra.-** Obrarako udal lizentzia ematea Olabezarretik Etxegoienera sartzeko bidea konpontzeko.
- **565/17 erref.: Aiarako Administrazio Batzarrak.-** Diru-laguntza ematea 2017ko ehiza-barrutirako.
- **566/17 erref.: KILI-KILI ARESPALDITZA ELKARTEA.-** Udal lokal baten erabilera lagatzea.
- **567/17 erref.: Onestea F/2017/15 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**

Nerea andreak (Bildu) 566/17 Dekretuagatik galdetu du, Arespalditzako Kili-Kili Elkarteari lokala lagatzeari buruzkoa. Galdetu du ea dekretuan zehazten diren lokala lagatzeko adostutako baldintzak.

Idazkariak baietz erantzun du. Dekretuaren kopia bat igorriko zaie korporazioko kideei.

➤ Hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, Gentza jaunak (EAJ-PNV) azaldu du Aiaraturreko Batzordeak elkarte hori desegiteko eskatu zuela. Likidatzeko batzorde bat izendatuko da. Eragin nagusia turismo bulegoak dira, Aiaraturrek kudeatzen zituen eta Basketurrek finantzatu (Aiaraturrekin sinatutako hitzarmen baten bitartez), Aldundiak (Kuadrillarekin sinatu zuen hitzarmen baten bitartez). Basketurri idazki bat bidaltzea proposatu da, Udalak turismo bulegoa kudeatuko duela jakinarazteko. Bestetik, Udalaren eta Basketurren arteko hitzarmen bat sinatzea. Zirriborroa idatzitakoan aztertu egingo da eta Udalbatzak onetsiko du. Gentza jaunak amaitu du eta esan du Amurrioko eredu hartuko dela; izan ere, Udalak berak kudeatzen du turismo bulegoa.

Korporazioko kideek proposamenarekin ados daudela esan dute.

## **8.- Galderak eta eskaerak.**

- Iraida andreak (Aiara Batuz) galdetu du ea amaitu diren Sierrara sartzeko obrak.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du amaitzen ari direla. Elurteak direla eta, hainbat egunetan ez dute lanik egin. Hurrengo astean amaituko dute.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogueiak eta hogeita hamazazpi minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hogueian.

Vº Bº

EL ALCALDE-PRESIDENTE

LA SECRETARIA,

Fdo.: Gentza Alamillo Udaeta

Fdo.: Naiara Lazpita Marcos.